7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen produktuak funtziona dezan?
Gure aburuz, produktua funtziona dezan, 8 elementu izan behar ditugu kontuan, eta bi taldetan banatuko ditugu.

A. SALMENTAK HOBETZEKO: produktuak arrakasta izan dezan, beharrezkoa da salmentan lagunduko duten ezaugarri batzuk zehaztea.

ESKURAGARRITASUNA ORIGINALTASUNA ETA IKERPENA OSASUNA ERABILGARRITASUNA

ESKURAGARRITASUNA: Gure aburuz, produktua eskuragarria izatea oso garrantzizkoa da, zenbat eta eskuragarriago egon, orduan eta salmenta handiagoak izango dituelako. Gure produktuak bezero sare handia du eta ondorioz, salmenta sare handia izan behar du. Gure produktua leku askotan salgai egondo da (web orria, supermerkatuak, dendak, telefonoz...) hori dela eta, eskuragarritasun handia du. Gainera, produktua salmenta lekuetan bertan har daiteke edo etxera helarazi diezagukete. Hori gutxi balitz, nahiko merkea da, eta hori dela eta, edonork erosi dezake.

OSASUNA: Aurreko puntuetan aipatutakoa gogoratuz, eskeintzen dugun produktua oso osasungarria da eta onura asko eskeintzen dizkigu, hala nola, bitamina ugari. Gainera, gure I+G+D taldeak produktua osasungarria bihurtzeko metodoak ikertuko ditu.

ORIGINALTASUNA ETA IKERPENA: Aurreko puntuak gogoratuz, gure produktua oso originala dela ikusi daiteke hainbat arrazoiengatik. Adibidez, gure produktuak diseinu ezberdin ugari eskeintzen dituelako (umeentzako, klasikoak, helduentzako,pertsonalizatuak...). Gainera, gure I+G+D taldeak produktua hobeagia bihurtzeko metodoak ikertuko ditu.